last night	the previous night, the night before
next week / year	the following week / year
a week ago	a week before
here	there
this, these	that, those
I	he / she
my	his / her / etc.

Reporting verbs

- Zehar estiloko perpausei sarrera emateko erabiltzen diren aditzak dira, adibidez, ***say*** eta ***tell***; hauek mezua helarazten digute soilik, informazio gehiago gehitu gabe. ***Tell*** aditzak zeharkako osagarria darama ondoren beti, baina ***to*** preposiziorik gabe; ***say*** aditzak, berriz, aukeran du eraman ala ez, baina badaraman kasuetan ***to*** preposizioarekin joan behar du beti.

  tell + zeharkako osagarria
  say (+ ***to*** + zeharkako osagarria)
  "I've bought a kitten," she said.
  *She **said** (**to us**) / **told us that** she had bought a kitten.*
  (Katakumea erosi zuela esan zigun.)
- Hiztunaren intentzioa edo doinua azaldu nahi badugu, *reporting verbs* aditz andana dugu erabilgai, esate baterako: ***admit***, ***announce***, ***complain***, ***explain***, ***insist***, ***remind***, ***agree***, ***convince***, ***reply***, ***hear***, ***read***, etab.
  "We must take Exit 5," Jane said.
  *Jane **explained that** we had to take Exit 5.*
  (Janek esan zuen 5. irteera hartu behar genuela.)

Reported questions

Bi galdera mota daude ingelesez:

- ***Yes / No questions*** motakoak, hots, "bai" edo "ez" batekin erantzun daitezkeenak. Era horretako galderak zehar estilora aldatzeko ***ask*** aditza eta, ondotik, ***if*** edo ***whether*** partikula erabiliko ditugu. Orain galderak perpaus arrunt izatera pasa direnez, ez dago subjektu-aditz arteko hurrenkera-aldaketarik, ez dago galdera-ikurrik, ez eta komatxorik ere.
  "Do you have any pets?" they asked the girl.
  *They **asked** the girl **if / whether** she had any pets.*
  (Maskotaren bat ba al zuen galdetu zioten neskari.)
- ***Wh- questions*** motakoak ezin dira "bai" edo "ez" batekin erantzun. Galdetzaile batekin hasten direnak ditugu hauek (***what***, ***who***, ***where***, ***when***, ***why***, ***whose***, etab.), eta zehar estilora pasatzerakoan, galdetzailea ***if*** edo ***whether*** partikulen tokian kokatuko dugu. Jarraian subjektua eta aditza joango dira, eta galdera-ikurra nahiz komatxoak alde batera utziko ditugu.
  "What type of snake bit him?" the doctor asked.
  *The doctor **asked what** type of snake had bitten him.*
  (Zer motatako sugeak heldu zion galdetu zuen sendagileak.)
  Zehar estiloko galderek ziur ez gauden zerbait edo ez dakigun zerbait adieraz dezakete.
  *He **wanted to know / wondered** why the dog was out of the cage.*
  (Zergatik zegoen zakurra kaiolatik kanpo jakin nahi zuen / galdetzen zuen.)

Unit 7

CAN / CAN'T

Baiezkoa	Ezezkoa	Forma laburtua
I **can swim**	I **cannot swim**	I **can't swim**
You **can swim**	You **cannot swim**	You **can't swim**
He **can swim**	He **cannot swim**	He **can't swim**
She **can swim**	She **cannot swim**	She **can't swim**
It **can swim**	It **cannot swim**	It **can't swim**
We **can swim**	We **cannot swim**	We **can't swim**
You **can swim**	You **cannot swim**	You **can't swim**
They **can swim**	They **cannot swim**	They **can't swim**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Can I **swim**?	Yes, I **can**.	No, I **can't**.
Can you **swim**?	Yes, you **can**.	No, you **can't**.
Can he **swim**?	Yes, he **can**.	No, he **can't**.
Can she **swim**?	Yes, she **can**.	No, she **can't**.
Can it **swim**?	Yes, it **can**.	No, it **can't**.
Can we **swim**?	Yes, we **can**.	No, we **can't**.
Can you **swim**?	Yes, you **can**.	No, you **can't**.
Can they **swim**?	Yes, they **can**.	No, they **can't**.

Can moduzkoak zerbait egiteko trebezia edo gaitasuna (jakin), posibilitatea (ahal izan) adierazten du, eta baimena eta mesedeak eskatzeko ere (ahal izan) erabiltzen da.

- **Baiezkoa**: subjektua + ***can*** + aditza oinarrizko forman.
  *Lisa **can swim** very well.*
  (Lisak oso ongi daki igeri egiten.)
  *I **can go** to the airport.*
  (Aireportura joan naiteke.)
  *They **can use** it tonight.*
  (Gaur gauean erabil dezakete.)
- **Ezezkoa**: subjektua + ***cannot*** edo ***can't*** laburtua + aditzoina.
  *Jim **cannot run** fast.*
  (Jimek ezin du korrika azkar egin.)
- **Galderazkoa**: ***Can*** + subjektua + aditzoina.
  ***Can** I **close** the window?*
  (Leihoa itxi dezaket?)
- **Erantzun motzak**: pertsona-izenordain subjektua + ***can*** ala ***can't***.
  ***Can** she **speak** Swedish? Yes, she **can**. / No, she **can't**.*
  (Suedieraz hitz egiten badaki? Bai. / Ez.)

COULD / COULDN'T

Baiezkoa	Ezezkoa	Forma laburtua
I **could sing**	I **could not sing**	I **couldn't sing**
You **could sing**	You **could not sing**	You **couldn't sing**
He **could sing**	He **could not sing**	He **couldn't sing**
She **could sing**	She **could not sing**	She **couldn't sing**
It **could sing**	It **could not sing**	It **couldn't sing**
We **could sing**	We **could not sing**	We **couldn't sing**
You **could sing**	You **could not sing**	You **couldn't sing**
They **could sing**	They **could not sing**	They **couldn't sing**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Could I **sing**?	Yes, I **could**.	No, I **couldn't**.
Could you **sing**?	Yes, you **could**.	No, you **couldn't**.
Could he **sing**?	Yes, he **could**.	No, he **couldn't**.
Could she **sing**?	Yes, she **could**.	No, she **couldn't**.
Could it **sing**?	Yes, it **could**.	No, it **couldn't**.
Could we **sing**?	Yes, we **could**.	No, we **couldn't**.
Could you **sing**?	Yes, you **could**.	No, you **couldn't**.
Could they **sing**?	Yes, they **could**.	No, they **couldn't**.

Could aditzak trebezia eta posibilitatea adierazten ditu lehenaldian, eta baimena edo mesedeak eskatzeko ere erabil daiteke, ***can*** moduzkoarekin baino modu jasoagoan.

- **Baiezkoa**: subjektua + ***could*** + aditza oinarrizko forman.
  *Sam **could skate** when he was two years old.*
  (Samek bazekien patinatzen bi urte zituela.)
  *They **could study** last weekend.*
  (Joan den asteburuan ikasi ahal izan zuten.)
- **Ezezkoa**: subjektua + ***could not*** edo ***couldn't*** forma laburtua + aditzoina.
  *She **couldn't remember** the song.*
  (Ezin izan zuen abestia gogoratu.)
- **Galderazkoa**: ***Could*** + subjektua + aditzoina.
  ***Could** you **lend** me money?*
  (Dirua utzi zeniezadake?)
- **Erantzun motzak**: pertsona-izenordain subjektua + ***could*** ala ***couldn´t*** erabiliz osatzen dira.
  ***Could** you **climb** the mountain?*
  *Yes, I **could**. / No, I **couldn't**.*
  (Mendia igotzerik izan al zenuen? Bai. / Ez.)

SHOULD / SHOULDN'T

Baiezkoa	Ezezkoa
I **should use**	I **shouldn't use**
You **should use**	You **shouldn't use**
He **should use**	He **shouldn't use**
She **should use**	She **shouldn't use**
It **should use**	It **shouldn't use**
We **should use**	We **shouldn't use**
You **should use**	You **shouldn't use**
They **should use**	They **shouldn't use**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Should I **use**?	Yes, I **should**.	No, I **shouldn't**.
Should you **use**?	Yes, you **should**.	No, you **shouldn't**.
Should he **use**?	Yes, he **should**.	No, he **shouldn't**.
Should she **use**?	Yes, she **should**.	No, she **shouldn't**.
Should it **use**?	Yes, it **should**.	No, it **shouldn't**.
Should we **use**?	Yes, we **should**.	No, we **shouldn't**.
Should you **use**?	Yes, you **should**.	No, you **shouldn't**.
Should they **use**?	Yes, they **should**.	No, they **shouldn't**.

Should aholkuak emateko eta gure ustez egin behar litzatekeena adierazteko erabiltzen den moduzkoa da.

- **Baiezkoa**: subjektua + ***should*** + aditza oinarrizko forman.
  *You **should go** to the gym.*
  (Gimnasiora joan behar zenuke.)
- **Ezezkoa**: subjektua + ***should not*** edo ***shouldn't*** (ohikoena bigarrena izanik) + aditzoina.
  *She **shouldn't exercise** alone.*
  (Ez luke ariketa fisikoa bakarrik egin behar.)
- **Galderazkoa**: ***Should*** + subjektua + aditzoina.
  ***Should** I **take** a pill for my sore throat?*
  (Pilula bat hartu behar ote nuke nire eztarriko minarentzat?)
- **Erantzun motzak**: pertsona-izenordain subjektua + ***should*** edo ***shouldn't*** egitura erabiliko dugu.
  ***Should** I **lose** weight? Yes, you **should**. / No, you **shouldn't**.*
  (Argaldu egin behar al nuke? Bai. / Ez.)

MUST / MUSTN'T

Baiezkoa	Ezezkoa
I **must tell**	I **mustn't tell**
You **must tell**	You **mustn't tell**
He **must tell**	He **mustn't tell**
She **must tell**	She **mustn't tell**
It **must tell**	It **mustn't tell**
We **must tell**	We **mustn't tell**
You **must tell**	You **mustn't tell**
They **must tell**	They **mustn't tell**

- **Baiezkoa**: subjektua + ***must*** + aditzoina. Obligazioa eta zerbait egitea beharrezkoa edo komenigarria dela adierazten du, "behar izan" esangura baitu.
  *You **must get fit** soon.* (Sasoian jarri behar duzu laster.)

- **Ezezkoa**: subjektua + ***must not*** edo ***mustn't*** (bigarrena izanik ohikoena) + aditzoina. Debekua adierazten du, baimendua ez dagoena, eta baita ere zerbait ezin dela egin, ez delako komeni edo ez delako zuzena egitea.
  *You **mustn't talk** in the library.*
  (Ezin duzue liburutegian hitz egin.) [debekatuta dago]
  *She **mustn't put on** more weight.*
  (Ezin du gehiago gizendu.) [ez da komenigarria]
- **Galderazkoa**: ***Must*** + subjektua aditzoina. Kasu honetan ***must*** moduzkoak obligazioa edo beharra adierazten du. Hala ere aditz hau ez da larregi erabiltzen galderetan.
  ***Must** we **tell** him about the letter?*
  (Gutunaren berri eman behar al diogu?)
- **Erantzun motzak**: pertsona-izenordain subjektua + ***must*** ala ***mustn't*** erabiliko dugu.
  ***Must** I **go** now? Yes, you **must**. / No, you **mustn't**.*
  (Orain joan behar al dut? Bai. / Ez.)

HAVE TO / DON'T HAVE TO

Baiezkoa	Ezezkoa
I **have to go**	I **don't have to go**
You **have to go**	You **don't have to go**
He **has to go**	He **doesn't have to go**
She **has to go**	She **doesn't have to go**
It **has to go**	It **doesn't have to go**
We **have to go**	We **don't have to go**
You **have to go**	You **don't have to go**
They **have to go**	They **don't have to go**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Do I **have to go**?	Yes, I **do**.	No, I **don't**.
Do you **have to go**?	Yes, you **do**.	No, you **don't**.
Does he **have to go**?	Yes, he **does**.	No, he **doesn't**.
Does she **have to go**?	Yes, she **does**.	No, she **doesn't**.
Does it **have to go**?	Yes, it **does**.	No, it **doesn't**.
Do we **have to go**?	Yes, we **do**.	No, we **don't**.
Do you **have to go**?	Yes, you **do**.	No, you **don't**.
Do they **have to go**?	Yes, they **do**.	No, they **don't**.

- **Baiezkoa**: subjektua + ***have / has to*** + aditza oinarrizko forman. "Behar izan" esan nahi du eta, ***must***-ek bezalatsu, zerbait egiteko obligazioa edo beharra adierazten du. ***Have to*** jokatu egiten da, horregatik, ***must*** moduzkoak ez dituen aditz-denboretan erabiltzen da; horretan dira, hain zuzen, desberdinak.
  *We **will have to go** to the hospital.*
  (Ospitalera joan beharra daukagu.)
- **Ezezkoa**: subjektua + ***don't / doesn't have to*** + aditza oinarrizko forman. "Ez izan zertan", "ez beharrik izan" esangura du.
  *He **doesn't have to** bring water.*
  (Ez dauka ura ekarri beharrik / zertan ura ekarri.)
- **Galderazkoa**: ***Do / Does*** + subjektua + ***have to*** + aditza oinarrizko forman.
  ***Do** you **have to go** to the doctor?*
  (Medikuarengana joan beharra al duzu?)
- **Erantzun motzak**: pertsona-izenordain subjektua + ***do / does*** ala ***don't / doesn't***.
  ***Does** she **have to come** with us? Yes, she **does**. / No, she **doesn't**.* (Gurekin etorri beharra al du? Bai. / Ez.)

Have to eta ***must*** aditzen erabilera antzekoa bada ere, ***must*** autoritatea duten pertsonek erabili ohi dute (irakasleek, gurasoek, sendagileek, etab.); ***have to***, aldiz, mundu guztiak.

*You **must be** on time for the exam.*
(Garaiz joan behar zarete azterketara.)

*I **have to do** many exercises.* (Ariketa asko egin behar ditut.)

MAY / MIGHT

Baiezkoa	
I **may go**	I **might go**
You **may go**	You **might go**
He **may go**	He **might go**
She **may go**	She **might go**
It **may go**	It **might go**
We **may go**	We **might go**
You **may go**	You **might go**
They **may go**	They **might go**
Ezezkoa	
I **may not go**	I **might not go**
You **may not go**	You **might not go**
He **may not go**	He **might not go**
She **may not go**	She **might not go**
It **may not go**	It **might not go**
We **may not go**	We **might not go**
You **may not go**	You **might not go**
They **may not go**	They **might not go**

May (agian, beharbada, gerta daiteke) eta ***might*** (gerta liteke, baliteke) aditzek posibilitatea adierazten dute; bigarrena erabiltzean, ordea, posibilitate gutxiago dagoela adieraziko dugu. ***May*** aditza baimena eskatu, eman eta ukatzeko ere erabiltzen da edo zerbait modu jasoan eskatzeko.

- **Baiezkoa**: subjektua + ***may / might*** + aditzoina.
  *I **may / might reach** my destination tomorrow.*
  (Bihar iritsiko naiz beharbada nire jomugara.)
  *You **may use** my camera, but don't break it.*
  (Nire kamera erabil dezakezu, baina ez puskatu.)
- **Ezezkoa**: subjektua + ***may / might not*** + aditzoina.
  *She **may / might not come** today.*
  (Gerta daiteke / liteke gaur gauean ez etortzea bera.)
- **Galderazkoa**: ***May*** + subjektua + aditzoina. Galderetan ***may*** bakarrik erabiltzen da eta baimena edo mesedeak eskatzeko soilik erabiltzen da, eta ez posibilitatea adierazteko.
  ***May** I **use** your pencil?* (Zure arkatza erabil dezaket?)
- **Erantzun motzak:** pertsona-izenordain subjektua + ***may*** ala ***may not***.
  ***May** I **go** in now? Yes, you **may**. / No, you **may not**.*
  (Sar naiteke orain? Bai. / Ez.)

Unit 8

GERUNDIOA

Ingelesez *-**ing*** bukaera duen adizkia da, eta izenaren funtzioa betetzen duena honako kasu hauetan:

- Perpauseko subjektu bezala, ekintzei buruz era orokorrean ari garenean.

  ***Using** the Internet is easy.*
  (Interneta erabiltzea erraza da.)
- Zenbait aditzen osagai zuzen gisa: ***finish***, ***enjoy***, ***like***, ***hate***, ***love***, ***dislike***, ***avoid***, ***miss***, ***recommend***, ***suggest***, etab.

  *I **like doing** sport.*
  (Kirola egitea gustatzen zait.)
- Preposizioen ondotik.

  *Lucy is interested **in learning** English.*
  (Lucyk interesa du ingelesa ikasten.)
- Aditz forma batzuen ondotik: ***can't stand***, ***feel like***, ***don't mind***, ***prefer***, ***be*** / ***get used to***, ***it's no use***, ***look foward to***, etab.

  *I **can't stand watching** football on TV.*
  (Ezin dut telebistan futbola ikustea jasan.)

INFINITIBOA

Aurretik ***to*** daraman adizkia da. Aditz batzuen ondotik (***decide***, ***want***, ***promise***, ***hope***, ***pretend***, ***refuse***, ***offer***, ***agree***, ***seem***, ***appear***, ***choose***, ***expect***, ***learn***, ***plan***, ***promise***, ***want***, ***wish***, etab.) beste aditz bat dagoenean erabiltzen da, azkena izanik infinitiboan jartzen dena.

*He **decided to try** Skype.*
(Skype aplikazioa erabiltzea erabaki zuen.)

*He **promised not to tell** anybody.*
(Inori ez ziola esango hitz eman zuen.)

Zenbait adjektiboren atzean ere erabiltzen da, esate baterako, ***easy***, ***happy***, ***sad***, ***lucky*** eta ***hard***.

*I'm very **happy to be** here.*
(Oso pozik nago hemen nagoelako.)

SUBJECT / OBJECT QUESTIONS

- ***Who***, ***what*** eta ***which*** izenordain galdetzaileak subjektuari edo osagai zuzenari buruzko informazioa eskatzeko erabiltzen dira.
- Subjektu funtzioa dutenean, galderaren hitzen hurrenkera baiezko perpaus batena bezalakoxea da.

  ***Who cooks** our lunch?*
  (Nork prestatzen du gure bazkaria?)

  ***What is** that?*
  (Zer da hura?)
- Objektu zuzenaren funtzioa dutenean galderak baduelako subjektua, trukatu egin behar da subjektua-aditza ordena, edo ***do*** / ***did*** / ***does*** laguntzailea erabili behar da.

  ***Who is** John **talking** to?*
  (Norekin ari da hizketan John?)

  ***What do** you **mean** by that?*
  (Zer esan nahi duzu horrekin?)
- ***When***, ***where*** eta ***why*** inoiz ezin ditugu subjektuari buruz galdetzeko erabili, (lekuzko, denborazko edo kausazko) osagarri zirkunstantzialari buruz galdetzeko baizik. Beraz, subjektu-aditz arteko hurrenkera trukatu egin behar dugu beti edo***do*** / ***did*** / ***does*** laguntzaileak erabili.

  ***Where have** you **been**?*
  (Non egon zara?)

  ***When did** you **come back**?*
  (Noiz itzuli zinen?)

Irregular Verbs

BASE FORM (V1)	PAST SIMPLE (V2)	PAST PARTICIPLE (V3)	EUSKARA
be /biː/	was/were /wɒz/wɜː/	been /biːn/	izan
beat /biːt/	beat /biːt/	beaten /'biːtn/	jo
become /bɪ'kʌm/	became /bɪ'keɪm/	become /bɪ'kʌm/	bihurtu, bilakatu
begin /bɪ'gɪn/	began /bɪ'gæn/	begun /bɪ'gʌn/	hasi
bend /bend/	bent /bent/	bent /bent/	tolestu, okertu
bet /bet/	bet /bet/	bet /bet/	apustu egin
bite /baɪt/	bit /bɪt/	bitten /'bɪtn/	hozka egin
bleed /bliːd/	bled /bled/	bled /bled/	odola jario
blow /bləʊ/	blew /bluː/	blown /bləʊn/	putz egin
break /breɪk/	broke /brəʊk/	broken /'brəʊkən/	apurtu
bring /brɪŋ/	brought /brɔːt/	brought /brɔːt/	ekarri
build /bɪld/	built /bɪlt/	built /bɪlt/	eraiki
burn /bɜːn/	burnt/burned /bɜːnt/bɜːnd/	burnt/burned /bɜːnt/bɜːnd/	erre
buy /baɪ/	bought /bɔːt/	bought /bɔːt/	erosi
catch /kætʃ/	caught /kɔːt/	caught /kɔːt/	hartu, harrapatu
choose /tʃuːz/	chose /tʃəʊz/	chosen /'tʃəʊzn/	aukeratu
come /kʌm/	came /keɪm/	come /kʌm/	etorri
cost /kɒst/	cost /kɒst/	cost /kɒst/	kostatu
cut /kʌt/	cut /kʌt/	cut /kʌt/	moztu
dig /dɪg/	dug /dʌg/	dug /dʌg/	aitzurtu, zuloa egin
do /duː/	did /dɪd/	done /dʌn/	egin
draw /drɔː/	drew /druː/	drawn /drɔːn/	marraztu
dream /driːm/	dreamt/dreamed /dremt/driːmd/	dreamt/dreamed /dremt/driːmd/	amets egin
drink /drɪŋk/	drank /dræŋk/	drunk /drʌŋk/	edan
drive /draɪv/	drove /drəʊv/	driven /'drɪvn/	gidatu
eat /iːt/	ate /eɪt/	eaten /iːtn/	jan
fall /fɔːl/	fell /fel/	fallen /'fɔːlən/	erori
feed /fiːd/	fed /fed/	fed /fed/	elikatu
feel /fiːl/	felt /felt/	felt /felt/	sentitu
fight /faɪt/	fought /fɔːt/	fought /fɔːt/	borrokatu, borroka egin
find /faɪnd/	found /faʊnd/	found /faʊnd/	aurkitu
fly /flaɪ/	flew /fluː/	flown /fləʊn/	hegan egin
forget /fə'get/	forgot /fə'gɒt/	forgotten /fə'gɒtn/	ahaztu
forgive /fə'gɪv/	forgave /fə'geɪv/	forgiven /fə'gɪvn/	barkatu
freeze /friːz/	froze /frəʊz/	frozen /'frəʊzn/	izoztu
get /get/	got /gɒt/	got /gɒt/	lortu; iritsi
give /gɪv/	gave /geɪv/	given /gɪvn/	eman
go /gəʊ/	went /went/	gone /gɒn/	joan
grow /grəʊ/	grew /gruː/	grown /grəʊn/	hazi; landatu
hang /hæŋ/	hanged/hung /hæŋd/hʌŋ/	hanged/hung /hæŋd/hʌŋ/	eseki
have /hæv/	had /hæd/	had /hæd/	izan, eduki
hear /hɪə/	heard /hɜːd/	heard /hɜːd/	entzun
hide /haɪd/	hid /hɪd/	hidden /'hɪdn/	ezkutatu
hit /hɪt/	hit /hɪt/	hit /hɪt/	jo
hold /həʊld/	held /held/	held /held/	eutsi
hurt /hɜːt/	hurt /hɜːt/	hurt /hɜːt/	zauritu, mindu; min eman
keep /kiːp/	kept /kept/	kept /kept/	gorde, mantendu
know /nəʊ/	knew /n juː/	known /nəʊn/	jakin, ezagutu
lay /leɪ/	laid /leɪd/	laid /leɪd/	jarri; hedatu, zabaldu
lead /liːd/	led /led/	led /led/	zuzendu, gidatu

BASE FORM (V1)	PAST SIMPLE (V2)	PAST PARTICIPLE (V3)	EUSKARA
learn /lɜːn/	learnt/learned /lɜːnt/lɜːnd/	learnt/learned /lɜːnt/lɜːnd/	ikasi
leave /liːv/	left /left/	left /left/	utzi; joan, irten
lend /lend/	lent /lent/	lent /lent/	prestatu
let /let/	let /let/	let /let/	baimena eman, utzi
lie /laɪ/	lay /leɪ/	lain /leɪn/	etzan
lie /laɪ/ (regular verb)	lied /laɪd/	lied /laɪd/	gezurra esan
light /laɪt/	lit /lɪt/	lit /lɪt/	piztu
lose /luːz/	lost /lɒst/	lost /lɒst/	galdu
make /meɪk/	made /meɪd/	made /meɪd/	egin
mean /miːn/	meant /ment/	meant /ment/	esan nahi izan
meet /miːt/	met /met/	met /met/	ezagutu; -ekin geratu
pay /peɪ/	paid /peɪd/	paid /peɪd/	ordaindu
put /pʊt/	put /pʊt/	put /pʊt/	jarri, ipini
read /riːd/	read /red/	read /red/	irakurri
ride /raɪd/	rode /rəʊd/	ridden /'rɪdn/	gainean ibili
ring /rɪŋ/	rang /ræŋ/	rung /rʌŋ/	deitu
rise /raɪz/	rose /rəʊz/	risen /'rɪzn/	jaso, altxatu
run /rʌn/	ran /ræn/	run /rʌn/	korrika egin
say /seɪ/	said /sed/	said /sed/	esan
see /siː/	saw /sɔː/	seen /siːn/	ikusi
sell /sel/	sold /səʊld/	sold /səʊld/	saldu
send /send/	sent /sent/	sent /sent/	bidali
set /set/	set /set/	set /set/	ezarri, ipini
shake /ʃeɪk/	shook /ʃʊk/	shaken /'ʃeɪkən/	eragin, astindu
shine /ʃaɪn/	shone /ʃɒn/	shone /ʃɒn/	distiratu
shoot /ʃuːt/	shot /ʃɒt/	shot /ʃɒt/	tiro egin
show /ʃəʊ/	showed /ʃəʊd/	show/	erakutsi
shut /ʃʌt/	shut /ʃʌt/	shut /ʃʌt/	itxi
sing /sɪŋ/	sang /sæŋ/	sung /sʌŋ/	abestu
sink /sɪŋk/	sank /sæŋk/	sunk /sʌŋk/	hondoratu
sit /sɪt/	sat /sæt/	sat /sæt/	eseri
sleep /sliːp/	slept /slept/	slept /slept/	lo egin
smell /smel/	smelt/smelled /smelt/smeld/	smelt/smelled /smelt/smeld/	usaindu
speak /spiːk/	spoke /spəʊk/	spoken /spəʊkən/	hitz egin
spell /spel/	spelt/spelled /spelt/speld/	spelt/spelled /spelt/speld/	letreiatu
spend /spend/	spent /spent/	spent /spent/	gastatu; eman (denbora)
stand /stænd/	stood /stʊd/	stood /stʊd/	zutik egon
steal /stiːl/	stole /stəʊl/	stolen /'stəʊlən/	lapurtu
stick /stɪk/	stuck /stʌk/	stuck /stʌk/	itsatsi
sweep /swiːp/	swept /swept/	swept /swept/	erratzatu, eskobatu
swim /swɪm/	swam /swæm/	swum /swʌm/	igeri egin
take /teɪk/	took /tʊk/	taken /'teɪkən/	hartu; eraman
teach /tiːtʃ/	taught /tɔːt/	taught /tɔːt/	irakatsi
tear /teə/	tore /tɔː/	torn /tɔːn/	urratu, zartatu
tell /tel/	told /təʊld/	told /təʊld/	esan, kontatu
think /θɪŋk/	thought /θɔːt/	thought /θɔːt/	pentsatu
throw /θrəʊ/	threw /θruː/	thrown /θrəʊn/	bota; jaurti
understand /ʌnde'stænd/	understood /ʌnde'stʊd/	understood /ʌnde'stʊd/	ulertu
wake up /weɪk 'ʌp/	woke up /wəʊk 'ʌp/	woken up /wəʊkən 'ʌp/	esnatu
wear /weə/	wore /wɔː/	worn /wɔːn/	soinean eraman; jantzi
win /wɪn/	won /wʌn/	won /wʌn/	irabazi
write /raɪt/	wrote /rəʊt/	written /'rɪtn/	idatzi

Writing Guide

IDATZI AURRETIK ▸ Brainstorming

- Egin ezazu gaiarekin loturiko ideien zerrenda edo galdera-mapa (***who?***, ***what?***, ***when?***, ***where?***, ***why?***).
- Irakur itzazu eta garrantzi gutxikoak iruditzen zaizkizunak ezabatu.
- Koka itzazu aurkeztu nahi dituzun hurrenkeran.

PARAGRAFOAREN EGITURA ▸ Paragraph structure

Paragrafo batek hiru zati ditu:

- **Sarrera** edo lehen esaldia (***opening sentence***), hots, gaia aurkezten duena.
- **Garapena** edo paragrafoaren gorputza (***body of paragraph***), ideia nagusia informazio garrantzitsuarekin zabaltzen duena.
- **Amaiera** edo azken esaldia (***closing sentence***), gaia laburbiltzen duena eta ideia nagusia beste hitz batzuekin errepikatzen duena.

I have always wanted to travel to Norway. Since I was a young child, I have been fascinated by this beautiful country and its amazing fjords. When I was ten years old, I decided to start saving half of my pocket money for my dream trip to Norway. Next week, I'm celebrating my 16th birthday, and I'm sailing on a ship to Norway with my parents. I've read two travel guides and planned our route. My parents have booked hotel rooms, so everything is ready. My dream will finally come true next week and I can't wait!

opening sentence

body of paragraph

closing sentence

IDATZITAKOA ERREPASATU ▸ Checking your work

PUNTUAZIOA
(Punctuation)

- Puntua (.) baiezko eta ezezko esaldien bukaeran jartzen da.
  I've travelled to Ireland.
- Koma (,) hitzak edo ideiak banantzeko erabiltzen da. Normalean ez da ***and*** juntagailuaren aurrean idazten.
  We've sailed to Greece, Cyprus and Italy.
- Galdera-ikurra (?) galderen amaieran bakarrik kokatzen da.
  Have you ever lost your luggage?
- Harridura-marka ere (!) esaldiaren amaieran idazten da, eta emozio edo sentimenduak adierazteko erabiltzen da eta baita zerbait nabarmentzeko ere.
  Wow! There are ten flights to New York today!

LETRA LARRIA
(Capital Letters)

Letra larriz idazten dira:

- pertsona-izenak eta tituluak: *Lucy Bennet, Mr Dill, Dr Atkinson*
- zenbait leku-izen; esate baterako hiri, herri, kontinente, eraikin ospetsu, museo, etab.: *Paris, Brazil, Africa, Tower Bridge, Tate Britain*
- herritartasunak: *Swedish, French, Danish*
- egunak: *Sunday, Monday, Thursday*
- hilabeteak: *October, May, July*
- esaldi baten lehen hitza: *Here is our luggage.*
- ***I*** pertsona-izenordaina: *I'm Swiss and I speak French.*
- hizkuntzak: *Japanese, German, Italian*
- liburu, pelikula, abesti, festa-aldi eta ordenagailuko joko izenen hitz garrantzitsuak:
  A Midsummer Night's Dream
  Message in a Bottle
  Easter, Christmas
  Sim City

DENBORA-PREPOSIZIOAK
(Prepositions of Time)

Preposizio desberdinak erabiltzen dira orduen eta festa-aldien aurrean, egunen eta daten aurrean, hilabeteen, urtaroen, urteen eta egun-zatien aurrean. Garrantzitsua da kasuan kasuko preposizio egokia erabiltzen jakitea. Begira arretaz honako adibide hauei:

• **at**	orduak:	*at five o'clock*
	festa-aldiak:	*at Christmas*
• **on**	asteko egunak:	*on Thursday*
	datak:	*on 12th February*
		on Christmas Day
• **in**	hilabeteak:	*in June*
	urtaroak:	*in summer*
	urteak:	*in 2022*
	egun-zatiak:	*in the afternoon*
Salbuespenak:		*at the weekend*
		at night

HITZEN HURRENKERA
(Word Order)

Ingelesez esaldiko hitzek oinarrizko hurrenkera hau dute:

We always drink lemonade in the summer.
s adv v o time expression

HITZEN HURRENKERA: ADJEKTIBOAK
(Word Order: Adjectives)

- Izenen aurrean jartzen dira normalean.
  the long flight
  adj n
  To be aditzaren ondoren ere bai.
  The airport is huge.
  v adj
  Eta aditz estatikoen ondoren.
  It looks exciting.
  v adj
- Adjektibo bat baino gehiago badago,hurrenkera hau jarraituko dute: iritzia, tamaina, adina, forma eta kolorea.
  There is a lovely, small, old, curved, blue chair here.
  o s a sh c

HITZEN HURRENKERA: ADBERBIOAK
(Word Order: Adverbs)

- Intentsitate-adberbioak eta moduzkoak aditzaren ondoren jartzen dira.
  You drive quite carefully.
  adverb of degree *adverb of manner*
- Maiztasun-adberbioak aditzaren aurrean jartzen dira baiezko esaldietan.
  He always forgets his coat.
  adv v
  Baina aditza ***to be*** bada, adberbioa atzean jartzen da.
  My friends are usually very friendly.
  v adv

SEKUENTZIA-LOKAILUAK
(Connectors of Sequence)

Sekuentzia-lokailuek ekintzak zein hurrenkeratan gertatu ziren adierazten digute. Ohikoenak hauexek dira: ***at first, first of all, before, after, after that, then, next, later, by the time, eventually, finally, in the end*** eta ***at last***.

***At first**, we watched the weather forecast on TV. **Then**, Mike checked the forecast on the Internet. **Eventually**, we took the bus to the beach. **At last**, we got into the water but it was very cold. **In the end**, we only stayed at the beach for half an hour.*

JUNTAGAILU ETA LOKAILU AURKARIAK
(Connectors of Contrast)

Juntagailu eta lokailu aurkariak kontrastea adierazten duten esaldiak lotzeko erabiltzen dira. Erabilienak hauek dira: ***on the one hand, on the other hand, but, however*** eta ***although***.

***On the one hand,** I enjoy watching reality TV. **On the other hand**, reality TV is often quite silly.*
*Cartoons are fun, **but** they aren't my favourite type of programme.*
*Documentaries are interesting. **However**, I watch sitcoms and soap operas most of the time.*
***Although** adverts are annoying, I usually watch them.*

EMENDIOZKO JUNTAGAILUAK
(Connectors of Addition)

Emendiozko juntagailuak antzekoak diren ideiak lotzeko eta informazio gehigarria eransteko erabiltzen dira. Ohikoena ***and*** da. Funtzio bera bete dezakete adberbio batzuek ere, adibidez, ***also***, ***in addition (to)*** eta ***as well as***.

*Last night, I wrote an entry in my blog **and** I wrote three e-mails.*
*I read a book about the invention of the radio. I **also** researched the radio on the Internet.*
*Yesterday, I studied many hours for the science test. **In addition**, I wrote an essay for my history lesson.*
*You can use it to take photos, **as well as** to record sound.*

KAUSAZKO ETA ONDORIOZKO LOKAILUAK
(Connectors of Cause and Effect)

- Kausazko lokailuak zerbait zergatik gertatu den adierazteko erabiltzen dira. Lokailu arruntenak hauexek dira: ***because***, ***because of***, ***due to***, ***as a result of*** eta ***since***.

*I couldn't go out **because** it was raining heavily.*
*The party was cancelled **because of** the storm.*
***Due to** the storm, many trains and buses stopped working.*
***As a result of** the storm, a number of trees fell.*
*The bake sale was successful **since** the cakes were delicious.*

- Ondoriozko lokailuak zerbaitek eragin dituen ondorioak adierazteko erabiltzen dira. Ohikoenak hauexek dira: ***so***, ***therefore*** eta ***as a result***.

*I mustn't eat a lot of sugar,**so** I didn't buy anything at the bake sale.*
*Many people bought cakes and biscuits. **Therefore**, the profits were good.*
***As a result**, the students bought new computers for the school.*

EDUTEZKO ADJEKTIBOAK ETA IZENORDAINAK
(Referencing)

Aurretik aipatutako izenak errepikatu beharrik gabe beroriei erreferentzia egiteko erabiltzen dira.

***My gym** is near a bus stop. **It** is also near a train station.*
***Kim and I** are going to the gym. You can come with **us**.*
***Dan's** football is next to the tree. That's **his** football.*

TESTU MOTAK ▶ Text types

EGUNKARIKO OHARRAK
(A Diary Entry)

Egunkari batean gure bizitzako gertakariak eta beroriei buruzko sentipenak kontatzen ditugu. Ohar horiek lehen pertsonan idatziko ditugu beti eta hizkuntza adierazkorra nola informala erabiliko dugu.

NARRAZIOA
(A Narrative)

Narrazio batek istorio bat era ordenatuan kontatzen du. Lehenik eta behin ekintza kontatzen dugu, gertatu zeneko denboraren eta lekuaren berri emanaz, zer-nolako eguraldia egiten zuen esanaz, pertsonaiek soinean zeramatzaten arropak deskribatuz eta, istorioaren gertakari garrantzitsuenak jazo aurretik, pertsonaiok zertan ari ziren zehaztuz. Ondoren, gertakizunen sekuentzia, hots, gertakizunen hurrenkera kronologikoa. Narrazioak gertatutakoa deskribatuz eta arrazoiak edo ondorioak azalduz bukatu behar du.

Normalean *Past Continuous* aldia erabiltzen da istorioko gertakari garrantzitsuenak gertatzen ari ziren unean jazotzen ari zena deskribatzeko, eta *Past Simple* aldia gertaerak modu kronologikoan kontatzeko. Sekuentzia-lokailuak, berriz, narrazioko gertakarien hurrenkera argitzeko erabiltzen dira.

TELEBISTAKO PROGRAMA BATEN KRITIKA
(A Review of a TV Programme)

Telebistako programa bati buruz idazterakoan, programaren edukia deskribatzen dugu eta berari buruz dugun iritzia eman. Lehenik, programaren izena aipatu eta zer motatako programa den esaten da, eta programaren aipamen orokor bat egin. Ondoren, pertsonaia nagusiei nola antzezleei buruzko xehetasunak ematen dira, eta programak jorratu duen gaia gustuko dugun ala ez arrazoitu. Normalean emendiozko juntagailuak eta lokailuak erabiltzen dira gure komentarioak eta ideiak, kontrakoak bezala aldekoak, lotzeko. Azkenik, irakurleari zuzendutako gomendioa egiten da, programa zergatik gozatuko duen ala ez duen gozatuko azalduz.

IRITZI-TESTUA
(An Opinion Essay)

Iritzi-testua idazterakoan, norberaren iritzia ematen da, eta iritzi hori justifikatuta dagoela konbentzitzen saiatzen gara irakurlea. Iritzia garbi azaldutakoan, datuak eta adibideak ematen ditugu berori indartzeko. Emendiozko lokailuak eta adberbio batzuk ere erabiltzen dira antzeko ideiak lotzeko eta informazio gehigarria eransteko. Testuaren amaieran iritzia adierazi behar dugu berriro.

ARTELAN BATEN DESKRIBAPENA
(A Description of a Work of Art)

Artelan bat deskribatzerakoan, izena, data eta artistaren izena ematen dira normalean. Gero, lanaren estiloa eta irudikatzen dituen gauza edo pertsonak deskribatzen dira. Garrantzitsua da adjektibo ugari erabiltzea. Ondoren, obraren xehetasun gehiago ematen da, eta, bukatzeko, ustez artistak zer adierazi nahi zuen azaltzen da, eta norberaren iritzia, artelanak zer sentiarazten digun adieraziz.

ALBISTEA
(A News Report)

Albiste bat idatzi nahi denean, gertaerak hurrenkera kronologikoan ematen dira. Normalean, honako galdera hauei erantzuten diegu: ***noiz, non, nor, zer*** eta ***zergatik.***

Lehenik, gertakariaren aurrekariei buruzko informazioa eskaintzen da. Ondoren, non eta noiz gertatu zen aipatzen da, eta nor egon zen tartean. Azkenik, ondorioak deskribatzen dira. Gertakariaren arrazoiak eta ondorioak deskribatzeko, maiz, kausazko eta ondoriozko juntagailuak erabiltzen dira.

AZALPEN-TESTUA
(An Informative Essay)

Azalpen-testua idazterakoan, gai bati buruzko informazio objektiboa bakarrik eskaintzen dugu, hau da, gertaerak soilik, eta ez iritziak edo istorio pertsonalak.

Lehenik, gaia aurkezten dugu, izenak eta datak eskainiz. Gaia zergatik den garrantzitsua ere esaten da. Ondoren, gertakariak eta gaiari buruzko informazio zehatza eskaintzen da, eta, bukatzeko, puntu garrantzitsuenak laburbiltzen ditugu. Garrantzitsua da izenordainak eta edutezko adjektiboak erabiltzea, izen berberak gehiegitan ez errepikatzearren.

POSTA ELEKTRONIKOA
(An E-Mail)

Posta elektronikoetarako hizkuntza informala hautatzen dugu, hitz egiterakoan erabiltzen dugunaren antzekoa. Parentesiak eta harridura-ikurrak erabili eta galdera pertsonalak egin ditzakegu. Gainera, diosal eta agurretan lagunarteko formulak erabiltzen dira. Irakurleari idazlana interesgarriago gerta dakion, adberbioak erabil daitezke. Korreo elektronikoaren hasieran gaia aipatu behar da eta bukaeran ideia nagusia errepikatu.

Language Builder

Unit 1 page 7

Write the Dialogue

3 **Peter is talking to a travel agent about a trip he wants to take. Write the dialogue between them.**

1. Peterrek dio Pariserako hegazkin-txartelak erostea gustatuko litzaiokeela.
   Peter: .....
2. Bidaia-agenteak galdetu dio zein egunetan joan nahiko lukeen.
   Travel Agent: .....
3. Peterrek erantzun du astelehenean joan nahi lukeela, abuztuaren 1ean, eta abuztuaren 8an itzuli.
   Peter: .....
4. Bidaia-agenteak galdetu dio Peterri turista klaseko txartela nahiko lukeen.
   Travel Agent: .....
5. Lehen klaseko txartela nahi lukeela erantzun dio Peterrek. Zenbat den galdetu dio.
   Peter: .....
6. Bidaia-agenteak esan dio Peterri txartela 500€ dela.
   Travel Agent: .....

Unit 2 page 9

Write the Dialogue

3 **Susan and Mike are talking about an interesting photo in the newspaper. Write the dialogue between them.**

1. Argazkian zer ikusten duen galdetu dio Susanek Mikeri.
   Susan: .....
2. Mikek esan du pertsona batzuk ikusten dituela sumendi batetik ihesi.
   Mike: .....
3. Susanek galdetu dio Mikeri ea zer gertatu den.
   Susan: .....
4. Mikek esan du sumendia, antza denez, erupzioan hasi dela.
   Mike: .....
5. Bere ustez, argazkiko jendea nola sentitzen den galdetu dio Susanek Mikeri.
   Susan: .....
6. Mikek esan dio seguru aski izuturik egongo dela.
   Mike: .....

Unit 3 page 11

Write the Dialogue

3 **Claire and Peter are watching the programme *Survival* on TV. Write the dialogue between them.**

1. Bere ustez, telebistako errealitate-programak ez direla interesgarriak esan du Clairek.
   Claire: .....
2. Peterrek galdetu dio Claireri zer iritzi duen telenobelen gainean.
   Peter: .....
3. Clairek esan dio telenobelak, bere iritziz, telebistako programa ergelenak direla.
   Claire: .....
4. Telenobelak beretzat oso interesgarriak direla esan du Peterrek.
   Peter: .....
5. Clairek esan du egoera-komediak bikainak direla.
   Claire: .....
6. Peterrek esan du, bere irudiko ere, egoera-komediak dibertigarriak direla.
   Peter: .....

Unit 4 page 13

Write the Dialogue

3 **Claire and Liam must do a science project about inventions. Write their dialogue.**

1. Agian, telebistari buruz idatzi behar luketela esan du Clairek.
   Claire: .....
2. Liamek esan du ez duela uste hori ideia ona denik.
   Liam: .....
3. Clairek galdetu dio zer iruditzen zaion telefonoari buruz idaztea.
   Claire: .....
4. Liamek galdetu du zergatik nahi duen Clairek horri buruz idaztea. Esan du ideia lazgarria dela hori.
   Liam: .....
5. Autoari buruz idatz dezaketela esan du Clairek.
   Claire: .....
6. Liamek esan du ideia bikaina dela hori.
   Liam: .....

Unit 5 page 15

Write the Dialogue

3 **Tim and Wendy are at an art museum. Write their dialogue.**

1. Timek esan du Picassoren margolan hau Van Goghen margolan honen antzekoa dela, biek kolore biziak dituztelako.
   Tim: .....
2. Margolanak desberdinak direla esan du Wendyk, Picassorena Van Goghena baino abstraktuagoa delako.
   Wendy: .....
3. Van Goghen margolana Picassorena baino errealistagoa dela esan du Timek.
   Tim: .....
4. Wendyk esan du jendea ikus daitekeela bi margolanetan.
   Wendy: .....
5. Itxura denez, bi margolanak ez direla tradizionalak esan du Timek.
   Tim: .....
6. Wendyk esan du Picassoren margolana konplexuagoa dela, baina Van Goghen margolana nahiko sinplea dela.
   Wendy: .....

Unit 6 page 17

Write the Dialogue

3 **Simon and Julia are talking about the news. Write their dialogue.**

1. Artikulu interesgarri bat irakurri zuela egunkarian kontatu dio Simonek Juliari.
   Simon: .....
2. Zeri buruzkoa zen galdetu dio Juliak.
   Julia: .....
3. Simonek esan dio, antza denez, sute handi bat egon zela basoan eta animalia batzuk hil zirela.
   Simon: .....
4. Zer gertatu zen galdetu du Juliak.
   Julia: .....
5. Simonek esan du kanpinlari batzuek, dirudienez, sua piztu zutela basoan. Azaldu du sua itzaltzea ahaztu zitzaiela.
   Simon: .....
6. Juliak esan du gertakizun izugarria dela.
   Julia: .....

Unit 7 page 19

Write the Dialogue

3 **Mike and Janet are planning a club for students who want to work out together at their school. Write their dialogue.**

1. Mikek esan du ariketa fisikoa egin behar luketela goizetan eskolara joan baino lehen.
   Mike: .....
2. Janetek esan dio sentitzen duela, baina ez dagoela ados. Goizetan denak nekatuegi egongo direla esan du.
   Janet: .....
3. Mikek esan du, bere irudiko, Janetek arrazoi duela, baina jende guztia lanpeturik dagoela eskola ondoren.
   Mike: .....
4. Mikek arrazoi duela esan du Janetek. Agian asteburuetan hobe litzakeela esan du.
   Janet: .....
5. Mikek esan dio berak ez duela horrela ikusten. Eskola-elkarte batek eskola-egunetan elkartu behar lukeela.
   Mike: .....
6. Janetek esan dio hori egia dela, baina beste aukerarik ez dutela.
   Janet: .....

Unit 8 page 21

Write the Dialogue

3 **Jane and Frank are making plans for the weekend. Write their dialogue.**

1. Zer egin nahi duen galdetu dio Janek Franki.
   Jane: .....
2. Hondartzara joateko gogoa duela esan dio Frankek.
   Frank: .....
3. Janek esan dio berak nahiago lukeela pelikula bat ikusi.
   Jane: .....
4. Frankek esan dio ideia bikaina dela hori.
   Frank: .....
5. Zer ordutan elkartu beharko liratekeen galdetu du Janek.
   Jane: .....
6. Frankek esan du larunbatean 14:00etan ondo dagoela. Orduan ikusiko dutela elkar.
   Frank: .....

Check Your Progress

Translation Exercises

Unit 1

1. Zer ordutan iritsi da zure trena gaur goizean?

2. Nire hegaldia galdu berri dut.

3. Zergatik ez duzu joan-etorriko txartelik erreserbatu oraindik?

4. Robek, asteburuetan, abiadura handiko trena hartu ohi zuen Sevillarako.

5. Landara joaten ohi zinen oporretan?

Unit 2

1. Ibaian itotzen ari zen mutikoa salbatu genuen.

2. Jim harrapatuta dago behera etorritako eraikin horretan.

3. Ez genuen sugarrak itzaltzeko ezer aurkitu.

4. Galdu den umearen bila gabiltza bizitoki duen eremuan.

5. Gogoratzen duzu lurrikara batek Haiti eraso zuen urtea?

Unit 3

1. Susmagarriak banku batean lapurreta egin zuen orain dela bi egun.

2. Poliziak lekukoaren hilketa ikertu zuen.

3. Autobus bat bahitu zuen gizona atxilotu zuten.

4. Etxera iritsi nintzenerako, egoera-komedia hasita zegoen.

5. Telebistako errealitate-programa batean azaldu ondoren, ospetsu egin zen.

Unit 4

1. Zure abestiak iPod batean gordetzen ez badituzu, galdu egingo dituzu.

2. Arduratsuagoak bagina, gure planeta hurrengo belaunaldientzat zainduko genuke.

3. Kartzelara joango zen, lekukoak identifikatu izan balu.

4. Ni zu banintz, ezabatu egingo nuke argazki hau.

5. Telefono mugikor bat sartzen badugu, gaur egungo teknologia irudikatuko du.

Unit 5

1. Tradiziozko paisaia hau aspaldi margotutakoa da.

.....

2. Buztinezko eskultura hauek ez dira museoan erakutsiko.

.....

3. Kolore alaiak erabiltzen ditu beti bere lanetan.

.....

4. Erakustaldi hau milaka lagunek ikusi zuten.

.....

5. Noiz salduko da akuarela eder hau?

.....

Unit 6

1. Peter kexatu egin zen animalia abandonatuak zeudelako.

.....

2. Gaizki tratatutako maskotei lagunduko geniela iragarri genuen.

.....

3. Txakurrak animalia gogorrak zirela esan zidan.

.....

4. Jasonek onartu zuen begirunerik gabe jokatu zuela.

.....

5. Arretatsua izan behar nuela azaldu zuten.

.....

Unit 7

1. Nire hanka oso handituta dago. Agian hautsita egongo da.

.....

2. Ez daukazu gimnasiora joan beharrik sasoian jartzeko.

.....

3. Zer pilula hartu beharko nuke eztarriko minarentzat?

.....

4. Ez zenuke pisurik galdu behar.

.....

5. Ariketa egin behar duzu egunero.

.....

Unit 8

1. Gaur gauean film bat ikusteko gogorik ez dut.

.....

2. Etxean gelditzea erabaki dugu euriagatik.

.....

3. Gustura lagunduko nizuke.

.....

4. Nork joan nahi du norabait afaltzera?

.....

5. Testu-mezuak erabiltzen ditut lagunekin harremanetan egoteko.

.....

.....